



**EUOPAR BATASUNA, MAROKO eta EUSKADIren
arteko HARREMANAK:
Merkataritza, Migrazioak, Giza Eskubideak, Sahara, eta RIF**

2019/03/28 Osteguna- 10.30am-14.30pm
Paraninfoan –Zuzenbide Fakultatea UPV/EHU-Donostia-San Sebastián

Marokoko Mohammed VI.a erregearen agintealdian Europar Batasunarekin elkarrizketa politikoa eta harremanak indartu dira. Alauita erreinua da Batasunak dituen finantz baliabideetatik babes gehien lortzen duenetakoa, batez ere auzotartasun europar politikaren bidez.

2016ko EBJAren epaiak Sahara mendebaldeko lurraldeak Marokorekin sinaturiko merkataritza akordiotik kanpo zeudela aitortu zuen. Epai honen harira sorturiko polemikaren ondoren, nekazal eta arrantza arloko hitzarmenen bernegoziaketa berrian europar erakundeek de facto lurralde okupatuen gain subiranotasun marrokiarra aitortzea suposatu du.

Gainera, Mediterraneoko migrazio ibilbideetan Morocok hartu duen garrantzia dela eta, bertako agintariek mugen kontrolarekin lotutako auziak EBrekin dituzten negoziaketetan mahai gainean jartzen dituzte. Etorkinen aurka europar eta marrokiar agintarien aldetik ematen diren giza eskubideen bortxaketak egunerokotasuna duten ekintzak dira.

Auzi guzti hauei RIF eta Marokoko botere zentralaren arteko harreman gorabeheratsua gehitu behar diegu. Rifeko erantzun-mugimenduak -Hirak-Majzeneko aginte gabeko Gobernuaren korrupzio eta klientelismoa, eta herrialdearen iparraldeko zonalde honen bazterketa salatu ditu. Rifeko eta Saharako herrien gain Marokoko agintariek ezarritako errepresio gogorra nabarmena izan arren (horren eredu dira Amnesty International, Human Rights Watch eta beste erakunde independente batzuen salaketak), EB eta bertako Estatu Kideek positiboki baloratzen dituzte Morocoko erregimenaren aurrerapausuak giza eskubideen arloan.

Gai hauen inguruan Euskaditik daukagun ikuspegia aztertu eta erreflexionatzeko, ekitaldi akademiko bat proposatzen da Donostiako Zuzenbide Fakultatean, ostegunean martxoaren 28an, 10:30etatik 14:30etara.

Aurkezpenak: 10.30-12.00.

Aurkezlea: Joxerramon Bengoetxea (ehuGUNEko koordinatzailea)

Juan Soroeta (Nazioarteko Zuzenbideko UPV/EHU irakaslea)

EB eta Marokoren arteko harremanak: ikuspegi orokorra

David Alvarado (Kazetaria eta Rif. De Abdelkrim a los indignados de Alhucemas liburuaren egilea):

Marokon eta Europar Batasunean dagoen inkonformismoa

María López Beloso (Asesora de Investigación de la Universidad de Deusto):

EBeko erakundeak Ekialdeko Saharako giza eskubiden babesean

Atsedena: 12.00-12.30

Elkarrizketa horizontalak: 12.30-14.30

Aurkezlea: Maria Oianguren (Gernika Gogoratuz. Bake Ikerketa Zentroaren Zuzendaria)

Rif, Sahara eta Marokiar diasporaren erakunde, Hegoaldeko mugan lan egiten duten eta etorkinen laguntzarako elkarte, Marokon lan egiten duten GKE, Euskal empresa elkarte, Eusko Jaurlaritza eta Aldundiko Lankidetzako, Europar Batasuneko eta nazioarteko arduradun, Marokoko kontsulatuko arduradun, ikertzaile unibertsitarioek parte hartzeko aukera izango dute elkarrizketa horizontaletan

Baieztapenak (2019.03.24):

Abdulah Aarabi (Fronte Polisarioren Euskal Herriko ordezkaria)

Nour Eddine Ofakir (AZRAF, Rif-Euskal Herria elkarte)

Abdelkhalik Bentounhami (Abokatua)

Saad Malec (Gizarte hezitzailea, Jatorkin Al-Nahda Elkarte)

Koordinatzailea/Informazio gehiago

Jokin Alberdi Bidaguren (Europar Batasuneko Zuzenbideko UPV/EHU irakaslea)

jokin.alberdi@ehu.eus